

begirada

81

abuztua
2021



Photo by Orlando Imperatore / Cropped and desaturated from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEAK EAE-N 2021

Begirada honetan, 2021eko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatuta zeuden atzerritar jatorriko biztanleen datuak aurkezten ditugu, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) argitaratutako errolda jarraituaren behin-behineko aurrerapenaren arabera. Hala, eguneratuta geratzen dira 2020ko maiatzean argitaratu genuen 76. Begiradako datuak.


Datuetan ikusten den bezala, pandemiak eta ezarritako ezohiko neurriek inpaktua izan dute atzerritar jatorriko pertsonen migrazio-fluxuan. Dena den, 2021eko urtarrilaren 1ean, atzerritar jatorriko 246.501 pertsona zeuden EAEn erroldatuta, aurreko urtean baino 4.777 pertsona gehiago; hortaz, EAEko biztanleria osoaren % 11,1 dira jada.

Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE), 2021eko urtarrilaren 1ean, guztira 2.212.561 pertsona zeuden erroldatuta, eta horietatik 246.501 atzerriko herrialderen batean jaiok dira; biztanleria guztiaren % 11,1, beraz (1. grafikoa).

1998. urtearekin alderatuz, orduan, atzerritar jatorriko 26.334 pertsona zeuden erroldatuta EAEn; beraz, bi hamarkadatan, atzerritar jatorriko 220.000 pertsona erroldatu dira bertan. Horri esker, EAEn 113.933 pertsona gehiago daude, 1998tik gaur arte.

1. grafikoa

EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak (absolutuak eta %), 1998-2021 aldian



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

Bilakaera nolakoa izan den aztertuz gero, ikusiko dugu atzerritar jatorriko pertsonen etorrera-erritmoa ez dela konstantea izan, alderantziz, hiru garai ezberdindu ditzakegu: hazkunde, geldialdia eta atzerakada (1. irudia). 2. grafikoak adierazten du urtean zehar atzerritar jatorriko pertsonen hazkundeak izandako bilakaera. Lau fase zehatz bereiz ditzakegu:

1. Hasiera eta finkapena (1999-2008): Fase honetan zehar atzerritar jatorriko pertsonen etorrerak anekdota izateari utzi zion, eta errealitate bihurtu zen. Garai horretan, euskal ekonomiaren oparoaldiari eta hedapenari esker atzerritarren etorrera bizkortu egin zen; ondorioz, 2008an, horietatik 20.288 pertsona erroldatu ziren, orain arteko kopururik handiena.

2. Atzeraldia ekonomikoa (2009-2014): Krisi ekonomikoak eta, ondorioz, enplegua prekarizatu eta suntsitu izanak eragin nabarmena izan zuten migrazio-fluxuetan. Lehenengo urteetan (2009-2012), nabarmen murriztu ziren etorrerak; hala ere, atzerritar jatorriko biztanleriaren kopuruak handitzen jarraitu zuen. Bestalde, krisialdiaren ondoren (2013-2014), hain zuzen ere, euskal gizarteak krisiaren ondorio gogorrenak bizi zituenean, saldoa negatiboan mantendu zen.


3. Susperraldia eta berraktibazioa (2015-2020): Adierazle makroekonomikoak suspertzearekin batera, EAErantzko migrazio-fluxuak berraktibatu ziren. Hazkunde baxua izan zen hasieran, baina indarra hartzen joan zen; izan

ere, 19.732 erroldatze berri izatera iritsi zen 2019 eta 2020 artean.

4. COVID-19aren eragina (2021-gaur egun): Azken aldian, COVID-19ak eta mugikortasunean ezarritako ezohiko kontrol-neurriek beherakada esanguratsua eragin dute EAErantzko migrazio-fluxuan. 2020ko urtarrilaren 1aren eta 2021eko urtarrilaren 1aren artean, atzerritar jatorriko 4.777 pertsona erroldatu ziren EAEn. Nolanahi ere, atzerakada izan da aurreko urtearekin alderatuta, izan ere, % 75,8 murriztu dira erkidegorako fluxuak.

2. grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren urtetik urterako hazkundea EAEn (absolutua), 1998-2021 aldian



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

1. irudia

Migrazio-fluxuen joerak EAEn



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

1. taula

EAEko biztanleriaren hazkundera, bertakoa nahiz atzerritar jatorrikoa (absolutua)
1998-2021 eta 2020-2021 aldietan

Lurralde historikoen araberako banaketari dagokionez (1. taula), Araban bizi dira atzerritar jatorriko pertsona gehien; hain zuzen ere, 2021eko urtarrilaren 1ean, Arabako biztanleria guztiaren % 13 atzerrian jaiotakoa zen. Jarraian, Gipuzkoa da bigarren ehuneko altuena duen lurraldea (% 11,2), EAE osoari dagokion ehuneko baina pixka bat altuagoa. Azkenik, Bizkaiaren kasuan, bertako biztanleriaren % 10,6 jaio da atzerrian.


Atzerritar jatorriko biztanleriaren zenbatekoak biztanleria osoan duen zama aztertu ordez horren bolumenari erreparatzen badiogu, zenbaki absolututan, ikusiko dugu ordena hori alderantzikatu egiten dela. Atzerritar jatorriko pertsona gehienak Bizkaiaren bizi dira (121.737), ondoren, Gipuzkoan (81.354), eta azkenik, Araban (43.410).

	Biztanleria osoa	Bertako biztanleria	Atzerritar jatorriko biztanleria				
			Guztira	Biztanleria guztiaren %	Gizonak	Emakumeak	Emakumeen %
Araba	333.521	290.111	43.410	13,0	21.228	22.182	51,1
Bizkaia	1.153.362	1.031.625	121.737	10,6	57.316	64.421	52,9
Gipuzkoa	725.678	644.324	81.354	11,2	38.836	42.518	52,3
EAE	2.212.561	1.966.060	246.501	11,1	117.380	129.121	52,4

Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

3. grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleria ehunekotan, autonomia-erkidegoaren arabera eta 2020ko datuekin alderatuta



Espainiako datuekin alderatuta, EAE batezbestekoaren azpitik dago (3. grafikoa) atzerritar jatorriko biztanleen ehunekotan (% 15,4), eta zenbait erkidegotako ehunekotik oso urrun; adibidez, Madrilgo Erkidegoan ehunekoa % 20,7 da, Kanarietan % 20,2 eta Mediterraneo ertzeko erkidegoetan, berriz, Balear Uharteetan eta Katalunian, esaterako, % 24,3 eta % 20,5, hurrenez hurren.

Erkidego bakoitzeko atzerritar jatorriko biztanleria-kopuruaz gain, 3. grafikoak adierazten du, baita ere, kopuru bakoitzaren hazkundea, aurreko urtearekin alderatuta. Horri dagokionez, aurtengo datuak eta aurreko datuen eguneraketari buruzko begirada¹ alderatuta, nabari da pandemiak eragin esanguratsua izan duela, izan ere, autonomia-erkidego guztietan behera egin du etorrera-kopuruak. Hala, 2019 eta 2020 artean, Espainian erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua % 0,8 igo zen, eta 2020-2021 aldian, berriz, % 0,2 arte jaitsi da.

¹ Ikuspegi. (2020). *Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn 2020*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan76eusOK.pdf>

EAEko testuingurura itzuliz, arretaz aztertzen badugu atzerritar jatorriko biztanleen eta atzerriko nazionalitatea dutenen arteko erlazioa (4. grafikoa), azken kolektibo horretan nazionalizazio-prozesuak nolako bilakaera izan duen ikusiko dugu, urtez urte. 2008 eta 2012 artean, atzerritar jatorriko pertsonen % 17k zuen espainiar nazionalitatea.

Krisi ekonomikoaren garai gogorrenarekin batera (2013-2014), bi prozesu paralelo gertatu ziren. Batetik, lanpostuen suntsiketak eta ekonomiaren geldialdiak etorreren kopuruan atzerakada eragin zuten. Aldi berean, iritsi ziren pertsonak, lehenengo urteetan zehar espainiar nazionalitatea lortu zuten. Bi prozesuak aldi berean gertatu zirenez, nabarmen igo zen espainiar nazionalitatea zuten atzerritar jatorriko pertsonen kopurua.


Migrazio-fluxuen berraktibazioari esker (2015-2020), espainiar nazionalitatea zuten atzerritar jatorriko pertsonen kopurua berriz igo zen; horrek esan nahi du, beraz, iritsi ziren pertsonak migratu berriak zirela (oraindik ez zuten lortu espainiar nazionalitatea).

2021eko urtarrilaren 1ean, EAEn erroldatutako atzerrian jaiotako biztanleriaren % 26,3k espainiar nazionalitatea zuen. 2020ko datuekin alderatuta, eta krisialdian bezala, COVID-19aren testuinguruan atzerritar jatorriko pertsona gehiagok lortu dute espainiar nazionalitatea.

4. grafikoa

Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen eta atzerrian jaiotako biztanleen bilakaera EAEn, 2008-2021 (%)


- Nazionalitate espainiarreko edo nazionalitate bikoitzeko biztanleriaren %, atzerrian jaiotako guztizkoari dagokionez
- Nazionalitate atzerritarreko biztanleriaren %, atzerrian jaiotako guztizkoari dagokionez



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

5. grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera, eremu geografikoen arabera, EAEn (%). 2008-2021



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

Jatorri-eremuaren araberako bilakaerari dagokionez (5. grafikoa), 2021ean, EAEn errolatutako atzerritar jatorriko biztanleriaren erdia baino gehiago (% 51,7) Latinoamerikako herrialderen batean jaio zen. Latinoamerikaren atzetik, jatorri-eremu nagusiak Europar Batasuna (% 14,8) eta Magreb (% 14,2) dira. Azkena, Saharaz hegoaldeko Afrika (% 7,1).


Urteak pasa ahala, ordea, jatorrizko herrialdeen ehunekoak aldatuz joan dira. Latinoamerika izan da eremu nagusia, % 45etik gora mantendu da sistematikoki, eta, gainera, igotzen joanda; 2021ean ehuneko altuenera iritsi arte (% 51,7). Hala, diferentzia horien zergatia euskal gizartean bilatu behar dugu; izan ere, eskatzen dituen profilak, neurri handi batean, etxe-zerbitzuarekin eta zaintzarekin dute lotura. Gainontzeko eremuen ehunekoetan ere aldaketak izan dira. Europar Batasuna erdira jaitsi da azken hamahiru urtetan (2008-2021), % 26,8tik % 14,8ra. Magreben kasuan, ordea, igo egin da urte horietan zehar, % 10,2tik % 14,8ra.

6. grafikoan jatorri-eremuen bilakaera ikus dezakegu, lurralde historikoaren arabera. Bai Bizkaiak bai Gipuzkoak antzeko banaketa dute EAE osoarekin alderatuta (Latinoamerika da jatorri nagusia, jarraian, Europar Batasuna eta Magreb), baina pixka bat aldatzen da lurralde batetik bestera. Latinoamerikan jaiotako biztanle gehien dituen lurraldea Bizkaia da (% 55,3), aldiz, Europar Batasunean jaiotakoen ehunekorik altuena Gipuzkoan dago (% 17,6).

Arabaren kasuan, nahiz eta atzerritar jatorriko pertsona gehienak Latinoamerikan jaiotakoak diren (% 45,5), Magreb da bigarren jatorri-eremu nagusia (% 21,7), ehuneko altuenarekin, beste lurraldeekin alderatuta.

6. grafikoa


Atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera, EAEn eta lurralde historikoetan, eremu geografikoen arabera (%), 2021



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

7. grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren banaketa, eremu geografikoen eta sexuaren arabera (%), 2021



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

7. grafikoa ikus dezakegunez, EAEn atzerritar jatorriko biztanleria feminizatuta dago, hau da, emakume (% 52,4) gehiago daude gizonak (% 47,6) baino. Hala ere, jatorri eta lurraldearen arabera, banaketa hori aldatu egiten da. Afrikan jatorria dutenak, bai Saharaz hegoaldean bai Magreben, gizonezkoak dira gehienak: gutxi gorabehera, 10etik 6.


Beste muturrean, EAEn erroldatuta dauden jatorri latinoamerikarreko pertsonen % 61,2 emakumeak dira. Berriz ere, diferentzia horien jatorria euskal gizartearen premiei erreparatuz ulertuko ditugu; izan ere, arlo bakoitzak aukera gehiago edo gutxiago ditu euskal lan-merkatuan txertatzeko orduan.

8. grafikoan, jatorri-eremuek izandako bilakaera ikus dezakegu. 1998 eta 2008 artean, EAera iritsitako atzerritar jatorriko pertsona gehienak Europar Batasunetik eta, batez ere, Latinoamerikatik etorri ziren. Atzeraldi ekonomikoaren ondorioz, atzerritar jatorriko biztanleriaren hazkundera nabarmen moteldu zen, nahiz eta Magrebetik eta Asiatik etorritakoen kopuruak igotzen jarraitu zuen. Baldintza ekonomikoak hobetu ahala, migrazio-fluxua berraktibatu zen, bereziki, Latinoamerikatik zetorrena.

Azken aldian, COVID-19ak eta mugikortasunean ezarritako murrizketek beherakada nabarmena eragin dute EAeranzko migrazio-fluxuan. Jatorri-eremuen arabera aztertzen badugu, Latinoamerika eta Magreb dira atzerakada handiena jasan dutenak zenbaki absolututan; hain zuzen ere, % 72,6ko eta % 63,6ko jaitsiera izan dute, hurrenez hurren. Bestalde, bai Europar Batasunak bai Saharaz hegoaldeko Afrikak saldo negatiboa izan dute azken urtean; hau da, eremu horietako pertsona gutxiago errolatu dira, 2020 urteko datuekin alderatuta.

8. grafikoa

Jatorri-eremu nagusien urtetik urterako hazkunderaren bilakaera (absolutuak), 1999-2021



Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

Pertsona horien jatorrizko herrialdeari dagokionez (3. taula), Maroko, Kolonbia eta Errumania dira nagusiak. Jatorrizko hamar herrialde nagusiak aztertzen baditugu, ikusten denez, horietatik zortzi Latinoamerikako herrialdeak dira. Kolonbiaz gain, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Ekuador, Honduras, Paraguai eta Brasil.

Lurralde historien arabera banaketa, berriz, antzekoa da, ñabardura batzuekin. Araban, jatorri-eremu nagusiak Maroko eta Kolonbia dira, atzetik, Aljeria. Bizkaian, Kolonbia eta Marokok jarraitzen dute nagusiak izaten, diferentzia handiaz hurrengo biekiko: Bolivia eta Errumania. Gipuzkoaren kasuan, Maroko da atzerritar jatorriko pertsonen jatorri-eremu nagusia, baina hemen Nikaragua da bigarrena, Kolonbia gaituz.

Azken urtean izandako gorakadari dagokionez, hauek dira gehien hazi diren herrialdeak: Kolonbia (+1.146), Maroko (+971), Nikaragua (+803), Venezuela (+521) eta Honduras (+464). Bestalde, 2020 eta 2021 artean, jatorri errumaniarreko eta boliviarreko pertsona gutxiago erroldatu dira EAEn, -472 eta -10, hurrenez hurren.

2. taula

Jatorrizko hamar herrialde nagusiak EAEn eta lurralde historikoetan (absolutuak eta %), 2020-2021 aldian

	EAE	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa								
		N	%	2020-2021	N	%	2020-2021	N	%	2020-2021						
1	Maroko	28.317	11,5	971	Maroko	6.755	15,6	107	Kolonbia	14.604	12,0	700	Maroko	9.371	11,5	245
2	Kolonbia	27.074	11,0	1.146	Kolonbia	6.491	15,0	228	Maroko	12.191	10,0	619	Nikaragua	7.506	9,2	264
3	Errumania	15.458	6,3	-472	Aljeria	2.296	5,3	12	Bolivia	9.716	8,0	-60	Kolonbia	5.979	7,3	218
4	Nikaragua	15.037	6,1	803	Pakistan	1.632	3,8	66	Errumania	9.080	7,5	-392	Honduras	5.202	6,4	233
5	Bolivia	12.107	4,9	-10	Peru	1.580	3,6	82	Nikaragua	7.104	5,8	505	Errumania	4.990	6,1	-68
6	Venezuela	10.145	4,1	521	Ekuador	1.527	3,5	14	Venezuela	6.302	5,2	312	Ekuador	3.555	4,4	41
7	Ekuador	8.935	3,6	62	Paraguai	1.498	3,5	35	Paraguai	5.881	4,8	66	Portugal	3.197	3,9	-59
8	Honduras	8.181	3,3	464	Venezuela	1.498	3,5	99	Ekuador	3.853	3,2	7	Argentina	2.814	3,5	56
9	Paraguai	7.879	3,2	101	Nigeria	1.484	3,4	42	Brasil	3.592	3,0	-33	Frantzia	2.799	3,4	74
10	Brasil	7.139	2,9	-74	Brasil	1.470	3,4	-69	Peru	3.468	2,8	191	Pakistan	2.482	3,1	197
	Guztira 10	140.272	56,9	3.512	Guztira 10	26.231	60,4	616	Guztira 10	75.791	62,3	1.915	Guztira 10	47.895	58,9	1.201
	Gainerakoa	106.229	43,1	1.265	Gainerakoa	17.179	39,6	123	Gainerakoa	45.946	37,7	246	Gainerakoa	33.459	41,1	676
	Guztira	246.501	100,0	4.777	Guztira	43.410	100,0	739	Guztira	121.737	100,0	2.161	Guztira	81.354	100,0	1.877


Iturria: geuk egina, INEren datuak oinarri hartuta.

Laburbilduz

- 2021eko urtarrilaren 1ean, atzerritar jatorriko 246.501 pertsona zeuden erroldatuta EAEn, hau da, biztanleria osoaren % 11,1.
- Pandemiak eragin handia izan du EAEn iristen den atzerritar jatorriko biztanlerian. Azken urtean, atzerritar jatorriko biztanleria handitu da; hain zuzen ere, 4.777 pertsona gehiago daude. Kopurua handitu den arren, migrazio-fluxuan atzerapena izan da, hau da, % 75,8 jaitsi da etorreren kopurua, 2019-2020 aldiarekin alderatuta; izan ere, aldi horretan, 19.732 pertsona erroldatu ziren.
- Jatorri-eremuari dagokionez, EAEn bizi den atzerritar jatorriko biztanleriaren erdia baino gehiago (% 51,7) Latinoamerikako herrialderen batean jaio zen. Atzetik, Europar Batasuna (% 14,8) eta Magreb (% 14,2) dira eremu nagusiak.
- COVID-19ak eta mugikortasunean ezarritako murrizketek eragindako krisialdiari dagokionez, Latinoamerika eta Magreb jatorri-eremuen kopurutan eragin du gehien, zenbaki absolututan; izan ere, % 72,6 eta % 63,6 jaitsi dira, hurrenez hurren.
- Herrialdeen arabera aztertzen badugu, azken urtean, Kolonia da gehien hazi den jatorri-eremua, jarraian, Maroko eta Nikaragua. Beste muturrean, saldo negatiboa dute Errumaniak eta, neurri txikiagoan, Boliviak.
- Azken urtean etorritako pertsona gehienak Latinoamerikan jaio dira (% 66,8); horietatik, erdia baino gehiago emakumeak dira (% 51,4). Erroldatu diren atzerritar jatorriko pertsona gehienek jatorri-eremua, Latinoamerikaren atzetik, Maroko (% 16,4) da.

EAE 2021	Atzerritar jatorriko 246.501 pertsona	Biztanleria osoaren % 11,1
-----------------	--	--------------------------------------

Jatorri nagusiak EAEn	
% 51,7-k jatorria Latinoamerikan	Maroko, Kolonia, Errumania eta Nikaragua

COVID-19aren eragina migrazio-fluxuetan	
 atzerritar jatorriko 4.777 pertsona	% 75,8ko atzerapena 2019-2020 aldiarekin alderatuta
Latinoamerika eta Magreb eragin handiena jasan duten eremuak zenbaki absolututan	Errumania 472 pertsonako saldo negatiboa

Gehien hazi diren jatorri-eremuak			
EAE Kolonia Maroko Nikaragua Venezuela	Araba Kolonia Maroko Venezuela Peru	Bizkaia Kolonia Maroko Nikaragua Venezuela	Gipuzkoa Nikaragua Maroko Honduras Kolonia